

## BANDOA (B7-2022)

### ZALAIN AUZOKO TRAFIKOAREN ORDENAZIO BERRIA

Zalain auzoko karrika estuek arriskuak sortzen zituzten bertako trafikoan, bi auto ez baitira sartzen karrika horietan. Trafikoaren segurtasuna bermatzeko aukerak aztertu dira bertako auzolagunekin, eta Udalak adostutako neurriak ezarri ditu.

Neurri horien arabera:

AUZORAKO SARRERA NA-8304 errepidetik egin beharko da, Zalain-Etxeberri eta Zamarrenea etxeen arteko maldatik. Debekatua izanen da bide horretatik ateratzea.

IRTEERA Zalain poligonotik egin beharko da, Zelaieta enpresa paretik. Debekatua izanen da bide horretatik auzora sartzea.

Gainera, trafikora itxita egonen da auzotik Zalain Transformados aldera doan Berrotegia eta Etxetxipia etxeen arteko bide estua, oinezkoentzat soilik izanen baita, eta ezin izanen da bide horretatik autoan ibili. Halaber, itxi egin da auzotik N-121-A errepiderako irteera, Verkol alderako alegia, hagitz arriskutsua baita.

Aldaketa hauek auzoko trafikoaren segurtasuna bermatzeko ezarri dira, seinal bertikal eta horizontalekin adierazita daude, eta bete behar dira helburuak lortzeko.

## BANDO (B7-2022)

### NUEVA ORDENACION DEL TRAFICO EN EL BARRIO DE ZALAIN

La estrechez de las calles del barrio de Zalain origina riesgos en el tráfico local, ya que dos coches no caben en esas estrechas calles. Se han analizado las opciones para garantizar la seguridad del tráfico con los vecinos y vecinas del barrio y el Ayuntamiento ha establecido las medidas acordadas.

Según estas medidas:

El acceso al barrio será desde la carretera NA-8304, por la cuesta entre las casas Zalain-Etxeberri y Zamarrenea. Estará prohibido salir por esa vía.

La salida deberá realizarse hacia el polígono Zalain, por el camino frente a la empresa Zelaieta. Queda prohibida la entrada por esta vía en el barrio.

Además, permanecerá cerrado al tráfico el camino estrecho entre Berrotegia y Etxetxipia, desde el barrio hacia Zalain Transformados, que será peatonal y no se podrá acceder en coche por este camino. Asimismo, se ha cerrado la salida del barrio hacia la N-121-A, hacia Verkol, por su peligrosidad.

Estos cambios se han establecido para garantizar la seguridad del tráfico en el barrio, están señalizados con las señales verticales y horizontales necesarias y deben cumplirse para lograr los objetivos.

Bera, 2022-03-30.  
SIINADURA DIGITALA / FIRMA DIGITAL.  
ALKATEA / EL ALCALDE,  
Aitor Elexpuru Egaña .